

«Txoria txori»

**Miren Azkarate
Badiola**

Hamar urte betetzen dira gaur Mikel Laboa abeslari handia hil zenetik, 74 urte zituela. Nola pasatzen den denbora! Ni Martuteneko kaiolan nengoen eta atzo izango balitz bezala gogoratzen dut; albistegia lehen berri horrek lausotu zuen. Hutsune handi bat sentitu nuen bat-batean, eta nire kideak ere keinu tristeaz begiratu zidala oroitzen dut.

Nola definitu hain artista handia? Zer esan txiki-txikitatik kotxean, etxean, ikastolan, walkmaneko zintetan (diskorik

ez nuen) eta ondoren CDetan eta gaur egun ordenagailuan behin eta berriro entzun ditudan abestien kantariaz? Ba horixe bera, askok bezala nik ere ez dudala ulertzen bizitza Mikel Laboaren doinurik gabe.

Gure euskara maitean egindako abesti horiek, abesti baino gehiago maisulak... Ezin hitzekin adierazi letrez eta musikaz Laboak transmiti zezakeen guttia. Berari zor diogu ere gure hizkuntza munduan barreiatzea, “Txoria txori” ereserki internacional bihurtzeraino. Era be-

rean, bertako euskara ikasle askoren irakasle izan dira abestiok. Bere txikitasunean, handi! Asko zor diogu euskaldunok.

Esan dut ez dudala ulertzen nire bizitza bere abesti eta letrarik gabe, nire bizitzako momentu ezberdinetan presente egon dira eta gaur egun ez da gutxiagorako, besteak beste nire haurra lokartzeko hari musikalaren ezinbesteko elementua baita. Ez dakit handitzen denean zein musika mota entzungo duen, baina Mikel Laboa ez dakiola urrun ibili hegan. •

Natural-natural

Antton Izagirre

Orain gutxi, Gipuzkoako herri txiki batean familiarteko urteurreneko meza horietako batera joatea egokitu zitzaidan, eta, nire harridurarako, Maliko apaiz beltzarana agertu zitzaigun begien aurrean, aldarean. Albora begira jarri eta euskal komunitateak natural-natural hartu zuela jabetu nintzen. Itxoin nuen hitz egiten hasi zen arte eta meza natural-natural euskaraz ematen zuela ohartu nintzenerako bi emozio kontrajarrik hartu ninduten. Batetik, euskaldun izatearen harrotasunak sorturiko emozioaren bulkadaz, apaiz mozkote haren aha-

legina eta xalotasuna txalotu nituen isilean. Bestetik, haserreak, ikustean nola ondoko familiartekoak, bere ustez betiko euskal herritarra denak, ez zuen bere burua interpelatua sentitu eta natural-natural gazteleraz mintzatu zen, apaizarena ñabardura exotiko moduko zerbait balitz bezala.

Haserrea lasaitze aldera, pentsa dezaiket pertsona horien gaurko hizkuntz joera eta portaera bere garaian ikasi ez izanaren ondorio izan daitekeela eta etorkizunean gaudituko dugula. Halere, askotan, haserrea amorru bihurtzen zait, ikustean nola nire begiko pilotari,

futbolari, eta kirolari ugari, ETBk, aurrez natural-natural euskara jatorrean esandakoa, gazteleraz errepikatzen behartzen dituen, «gazteleraz ere badakit» esanarazi nahi baliote bezala.

Hamaika eguneko Euskaraldia, jarrerak eta joerak aldatzen hasteko aldia baldin bada, zain izango gara hamabigarrenean, okertzat jo ditugun jarrera horiek aldatzeko politikari eta arduradunek neurriak hartu dituzten ikusteko. Horrela ez balitz, ahobizi eta belarriprest txapak paparrean eraman izana, haien aldetik, itxurakeria hutsa izan dela pentsatuko dugu. •